



'Mugarik gabeko aniztasuna' gida Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) eta Bizkaiko Foru Aldundiak duten lankidetza hitzarmen markoaren baitan burutako proiektuetako bat da. Hezkuntza ez-formalean dauden eragileak izan dira Aniztasun Funtzionalera hurbiltzeko interesa azaldu dutenak eta esku hartzeko baliabideen beharra sumatu dutenak.

Hezitzaileentzako sortutako gida-bildumaren bigarren ale honek helburu bikoitza du: batetik, Aniztasun Funtzionalaren gaia gizareratzea; eta, bestetik, hezkuntza ez-formaleko hezitzaileentzako erreferentziazko euskarria izatea.

Abiapuntua

2017an zehar Aniztasun Funtzionaleko hainbat elkarte eta eragilerekin harremana sortu da; gaur egungo errealitatera hurbilduz, erronkak ezagutuz, astialdiak arlo honetan duen garrantzia eta egitekoa aztertuz. Hainbat izan dira elkarteen ahotik jasotako bizipen eta ekarpenak, guzti horiei esker borobildu da 'Mugarik gabeko aniztasuna' gida.

Gaur egun jasotako mitoak eta aurreiritziak alde batera uzteko diskurtsoa jaso dugu bertan, Aniztasun Funtzionalaz hitz egiten gaudenean zer esan nahi dugun azalduz, egoera berriei aurre egiteko gomendioak eskainiz eta gaia lantzeko baliabideak bilduz.

Aniztasun Funtzionala gertutik ezagutzen

Aniztasun Funtzionala kontzeptua bera oso zabala da. Bere barne hainbat mota zehazten dira eta horretaz gain pertsona bakoitzak baditu bere gaitasunak eta baita mugak ere. Argi izan behar dugu Aniztasun Funtzionala bi elementuren interakzioa dela: pertsona eta ingurua. Aniztasun Funtzional gehiago edo gutxiago dugun pertsonak gara, gure inguruak ezartzen dizkigun eskakizun, muga edo zailtasunen arabera. Pertsona guztiengan pentsatzen badugu, ikuspegi global eta inklusibo batetik begiratzen ikasten badugu, oso funtzionalak izango gara.

'Mugarik gabeko aniztasuna' Gidaren diskurtsoa egituratzeko oinarria izan dira aniztasun funtzionala duten elkarteak eta baita astialdikoak ere. Honetarako, APDEMA, APNABI, Autismo Bizkaia, ASPACE Bizkaia, ASPACE Gipuzkoa, Atzegi, Bizkaiko Urtxintxa Eskola, EDEKA., Euskal Gorra Gazteak, Euskal Herriko Down Sindromearen eta bestelako Adimen Urritasunen Fundazioa, FEVAPAS, FEVAS. Plenainclusión Euskadi, Gautena, Gorabide eta Juventudes de Unidad Progresista de la ONCE elkarteak elkarriketatu ditugu.

Elkarriketa hauen helburua aipatutako kolektiboek bizi izan dituzten edota beraien gertukoenetan detektatzen dituzten beharrez hitz egitea zen, identifikatu eta gizarteratzea.

'Mugarik gabeko aniztasuna' Gidan zazpi puntutan bildu dira aipatutako erronkak:

1. Aukera berdintasuna

Eskubide osoko herritar aktibo modura, Aniztasun Funtzionala duten pertsonen gainerako herritarren aukera berdinez gozatzeko bermea izan behar dute. Inguruan egon daitezkeen mugak ezabatzean eta Aniztasun Funtzional mota bakoitzaren beharrezko erantzuteko laguntza ematean datza aukera berdintasuna.

2. Haurren moduan tratatzeko joera baztertea

Aniztasun Funtzionala duten pertsonekin aritzean sarri egiten den akats bat da pertsona helduak ez balira bezala tratatzea. Aniztasun Funtzionala duten pertsonen beren adineko pertsonen bezalako gurariak eta gustuak izaten dituzte eta beraz, haien adinera egokitzen den tratua jasotzea espero dute.

3. Irisgarritasun unibertsala

Elkarrekin hainbat aldiz esan duten legez, inklusioa osoa izango balitz, haiek ez lirateke beharrezkoak izango, eta hori da etorkizunerako erronketako bat. Erronka horri aurre egiteko, muga mota guztiak ezabatu behar dira (fisikoak, jarrerarekin lotutakoak), oso-osorik. Mugarik gabekoa, irisgarria eta %100ean inklusiboa den mundu batean, ez litzateke beharrezkoa izango gaur egun erakundeek egiten duten lana, gizarrekin berak beteko babilizke funtzio guztiak.

4. Aisialdirako jarduerak inklusiboak

Bizkaia mailan egindako azterlanen bildu den legez, erakundeak eurak dira aisialdirako jarduerak Aniztasun Funtzionala duten pertsonentzako inklusiboak izatea eskatzen dutenak. Erronka horren baitan, hainbat lehentasun markatu dira: espazioak irisgarriak egin eta egokitzea, hezitzaileei prestakuntza profesionala ematea Aniztasun Funtzionala duten pertsonen beharrezko ezagutzeko, baliabide gehiago eskaintzea, laguntzarako begiraleak eskaintzea, mugei uko egitea, tratua, aukera eta eskubide berdinak eskaintzea, publizitate eta informazio inklusiboa ekoiztea, programak, baliabideak eta zerbitzuak egokitzea...

5. Erakundeen inplikazioa eta konpromisoa: zeharkakotasuna politika publikoetan

Jarduera jakin batzuk gauzatzeko orduan, garrantzitsua da pertsona guztiak kontuan hartzea, Aniztasun Funtzionala duten pertsonak bereziki, jarduerak, proiektuak eta ekintzak irisgarriak izan daitezen. Gauza bera gertatzen da politika publikoak itxuratzeko orduan. Irisgarritasuna erakundeentzako lehentasuna bilakatu den honetan, oraindik badaude gizarte inklusibo baten bidean gaintitu beharreko erronkak. Irisgarritasunak etorkizuneko proiektu zein politikekin erabat lotuta joan beharko du. Funtsezkoa baita politikak zeharkako moduan itxuratzea, herritar guztien beharrianak bilduta. Aniztasun Funtzionala duten pertsonen beharrianak eta arlo horretan lan egiten duten erakundeak ere kontuan hartu behar dituzte politika horiek.

6. Hezitzaileentzako prestakuntza espezifikoa

Aisialdi hezitzailearen arloan aritzen diren begiraleek Aniztasun Funtzionala duten pertsonen beharriari erantzuten diete. Horretarako, astialdiko eskolen zeregina garrantzitsua da, esku hartzeko gakoak eskaintzen baitituzte. Zenbat eta handiagoa izan astialdiko eskolen eta Aniztasun Funtzionalaren esparruko erakundeen arteko lankidetzak, orduan eta hobea izango da aisialdi hezitzaileerako espazioetan parte hartzen duten pertsonen beharriari ematen zaien erantzuna.

7. Aniztasun Funtzionala duten pertsona gazteei buruzko datu espezifikoak

Momentura arte, Aniztasun Funtzionala duten pertsona gazteei buruzko hainbat estimazio bildu dira. Beharrezkoa da datu estatistiko errealak biltzea. *Urritasun planen* baitan, adin-tarteak oso zabalak dira. 18-30 urte bitarteko tarteak berezita egon beharko lirakeke. Hona hemen berriz planteatu beharreko beste zerbait: datu estatistikoek %33ko edo gehiagoko urritasun mailari egiten diete erreferentzia eta beraz, 'urritasunaitortua' esaten zaio. Pertsona horiek duten Aniztasun mailari bakarrik egiten zaio erreferentzia eta ez beste alderdi sozial batzuei.

Mugarik gabeko aniztasuna: sentsibilizazioan eta praktikan oinarritutako baliabidea

Gaian murgiltze aldera, Aniztasun Funtzionalak azken urteotan izandako bilakaeraren sarreratxo bat egin da. Dagoeneko ez dira konnotazio negatiboa duten hitzak erabiltzen, hala nola, 'atzeratua' edo 'minusbaliatua', lehen ofizialki ere erabiltzen zirenak. Gaur egun, konnotazio gabeko hitzak erabiltzen dira. Kontuz ibili beharra dago erabiltzen diren hitzekin, eta are gehiago hezitzaileen kasuan, haurrentzako, nerabeentzako eta gazteentzako erreferente bat baitira. Horretarako glosario labur bat prestatu da arloko terminoen inguruan sakondu eta hauen erabilera sustatzeko asmoz.

Horrez gain, gure egunerokotasunean baliagarriak diren gomendioak jasotzen dira, Aniztasun Funtzionala duten pertsonekin hitz egiterakoan kontutan izan beharko genituzkeenak.

Hezitzaileen paperaren garrantzia ezagututa, bere egunerokotasunari ere atal berezia eskaini zaio. Egoera berrien aurrean beharrezkoak diren gaitasunak aipatuz eta egoera bakoitzak eskatzen dituen beharrei erantzuteko horiek nola kudeatu azalduz. Askotan, egoera berri batean murgiltzeak ziurtasun falta sortzen du. Beldur hori normalizat jo eta egoera horiek ondo kudeatzen jakiteko beste tresna bat da hezitzaileentzako osatu dugun gida hau.

Guzti honetaz gain, gaia modu erakargarrian lantzeko hainbat baliabide nabarmendu dira gidaren amaieran (dokumentalak, film laburrak, liburuak...) eta baita arloko elkarteen direktorioa ere.

Bukatzeko, eta astialdiaren arloan hain ezagunak diren jolas eta dinamiketan zentratuz, hauek inklusiboak izateko ezinbestekoak diren ezaugarriak zerrendatzen dira eta horrekin batera adibide praktikoa batzuk luzatu. Atal honetan, ardatz nagusia inklusioaren garrantzia da, ekintzak egokituz edota berriak sortuz pertsona guztiak aintzat hartzea.

Baliabideen bilduma osatuz

EGK-k eta BFA-k hezitzaileentzat sortutako gida-bildumaren bigarren alea da hau. Oinarria astialdian lan egiten duten begirale eta hezitzaile ezberdinentzako baliabide gisa pentsatua dago. Hala ere hezkuntza arloko edozein hezitzaileentzako material aproposa da, esku-hartze egoki baterako baliagarria.

'Sexualitatearen koloreak', lehenengo gidarekin gertatu zen bezala, interesa duen edo gaiari sakontzea helburu duen edozein pertsonentzat tresna interesgarria da gida.

Urte amaierarako, drogamenpekotasunari dagokionez prebentzioa lantzeko baliabidea kaleratuko da orain arteko formatua mantenduz.